



**HONETAN
ERE...
SEGURU
ARTE
HEZKUNTZA
JARDUERAK**

**ETA MUGI-
KORTASUN
SEGURUA**

**LEHEN
HEZKUNTZA**



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

SEGURTASUN SAILA
Segurtasun Sailburuordetza
Tráfico Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD
Viceconsejería de Seguridad
Dirección de Tráfico

AURKEZPENEA



Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzako curriculumak, abenduaren 22ko 236/2015 Dekretuan jasotakoak, arrisku-egoeren prebentziorako programak aipatzen ditu 31. artikuluan eta, besteak beste, horien artean daude bide-segurtasunaren arloko hezkuntzari dagozkionak.

Betidanik bide-segurtasun deitutakoa bigarren mailan geratu da maiz, beste eduki batzuek eragindako presioa dela eta. Hala ere, ikastetxe askok, ongi jakinik trafiko istripuen prebentzioa ikasgeletan jorratu behar dela, kanpo-eragileentzat lekua uzten dute euren eskola-egutegi egitekotsuan, bide-segurtasunari buruzko jardueraren bat egiteko. Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailaren Trafiko Zuzendaritzaren ustez, harago joan behar dugu. Mugikortasun segururako hezkuntzak modu integratuan sartu nahi du eskolako curriculumean. Arrazoiak erraza eta konplexua da aldi berean: heriotza goiztiarrari aurrea hartzea, eta trafiko-istripuen ondorioz zauri larriak izan dituzten pertsonen zerrenda amaigabea geldiaraztea. Hezkuntza-komunitatean gure ahaleginak areagotu ditzakegu guztiok, eta elkarlanean aritu asmo handiko erronka hori lortzeko.

Horretarako, zenbait jardura proposatzen ditugu, ikasgelan alor bakoitzaren berariazko curriculum edukiak prebentzioaren ikuspuntutik txertatzeko aukera ematen dutenak. Hezkuntza-eragile zaren heinean, funtsezko ekarpena egin diezaiokezu trafiko-istripuen epidemia isila desagerrarazteko erronkari. Mila esker aurrez, jardura hauetara hurbiltzeagatik eta horiek zure ikasgelan aplikatzeagatik.



HONETAN ERE... SEGURU

Arte Hezkuntza eta Mugikortasun segururako jarduerak

Lehen Hezkuntza

AURKIBIDEA

Trafiko-istripuak, benetako arazoa, benetakoegia. [4]

Mugikortasun segururako hezkuntza, prebentziorako tresna. [5]

Mugikortasun segurua Arte Hezkuntzako curriculumean. [6]

LEHEN ZIKLOA

Lotura duten curriculumeko jarduerak eta edukiak. [9]

Lotura duten mugikortasun segururako jarduerak eta konpetentziak. [10]

JARDUERAK

1 Eskutik helduta joatea. [11]

2 Doinuarekin ibiltzen. [13]
Eranskinak. [15]

3 Mugikortasunaren soinuak. [24]
Eranskinak. [26]

4 Testurak eta bideak. [28]

5 Nire kalea. [30]
Eranskinak. [32]

BIGARREN ZIKLOA

Lotura duten curriculumeko jarduerak eta edukiak. [37]

Lotura duten mugikortasun segururako jarduerak eta konpetentziak. [38]

JARDUERAK

6 Labirintoa. [39]
Eranskinak. [41]

7 Nire emozioak kalean eta museoan [42]
Eranskinak. [46]

8 Mugimenduaren collagea. [47]

9 Arrautza kalteberak. [49]

10 Zarata edo isiltasuna. [52]

HIRUGARREN ZIKLOA

Lotura duten curriculumeko jarduerak eta edukiak. [55]

Lotura duten mugikortasun segururako jarduerak eta konpetentziak. [56]

JARDUERAK

11 Babesak. [57]

12 Eskolan seinaleak jartzea. [59]

13 Erabilera sortzaileak. [61]

14 Bizikleta. [63]

15 Publizitatea aztertuz. [65]
Eranskinak. [67]

HONETAN ERE... SEGURU

Arte Hezkuntza eta Mugikortasun segururako jarduerak


Lehen Hezkuntza

TRAFIKO-ISTRIPUAK, BENETAKO ARAZOA, BENETAKOEGIA

Garapenerako gure gizarte eredu motordun ibilgailuen erabilerari lotuta izan da, historian. Hazi eta hazi ari dira, etengabe, bai ibilgailuen kopurua bai urtean egindako kilometro kopurua eta errepideak ere. Mugikortasuna areagotu izanak ondorio negatiboak ere eragin ditu: kutsadura, auto ilarak eta, batez ere, trafiko-istripuak. Hain zuzen ere, azken horiek tragedia amaigabea izaten dira, eta herrialde industrializatuetan 14 eta 29 urte bitarteko biztanle gehien istripuen ondorioz hiltzen da.

Gizartea gero eta jakitunago da trafiko-istripuek eragiten dituzten biktimen kopurua murriztu beharra dagoela. Trafiko-istripuetan hiltzen eta zauritzen direnen tasek behera egin dute pixkanaka gure inguruan; baina, hala ere, hilen eta zaurituen kopuruak epidemia batek eragindakoak adina dira oraindik. Eta, gainera, ezin dugu ahaztu trafiko-istripuen biktima zuzenez gain, istripuen ondorioak zeharka jasaten dituzten pertsonak ere badirela: istripu larri bakoitzaren atzean, heriotza bakoitzaren atzean, familia tragedia bat dago.

Honako galdera hau egiten diogu geure buruari: nola saihestu trafiko-istripuak? Ez dago erantzun errazik, jakina, ez eta istripuak berak bakarrik saihestuko dituen ezer ere. Hala ere, guztiok onartzen dugu *giza faktorea* dela trafiko-istripu gehienen atzean dagoena.



Giza faktore izeneko horretan, jokabide gisa ulertzen da prebentzioa; hau da, arriskutsuztat hartzen diren egoerak saihestera bideratzen den jokabide bat, edo, arriskua errealitate bihurtzen bada, haren ondorioak arindu ahal izango direla ziurtatzeko jokabideak.

Prebentzioa egitatea izan dadin, pertsonak berak jakin behar du arriskuaren berri, eta hura hauteman eta saihestu behar du.

HONETAN ERE... SEGURU

Arte Hezkuntza eta Mugikortasun segururako jarduerak
Lehen Hezkuntza

MUGIKORTASUN SEGURURAKO HEZKUNTZA, PREBENTZIORAKO TRESNA

Istripuak prebenitzeko proposatzen dugun hezkuntza eredua «*Mugikortasun segurako hezkuntza. Gaitasunen gida*¹» dokumentuan dago jasota.

Gida horrek hezkuntza ibilbide integrala zehazten du, eta galdera hauei erantzun nahi die: *zer, nola eta noiz hezi mugikortasun seguruan*. Ez da eskolan soilik erabiltzeko gidaliburu bat; aitzitik, pertsonen trafiko-istripuen ondorioak bizitza osoan zehar saihestu edo minimizatu ahal izateko zer ezagutza, gaitasun eta jarrera behar diren zehazten du.

Gidak oinarrizko zazpi gaitasun zehazten ditu mugikortasun segururako:

Arreta

Zaugarritasunaren eta arriskuaren kontzientzia

Ingurunearen azterketa

Taldeko presioarekiko erresistentzia

Egokitzapena eta malgutasuna

Neure burua eta nire emozioak kudeatzea

Bideari lotutako egoeretan estresa kudeatzea

¹ Herrizaingo Saila (2008). *Mugikortasun segururako hezkuntza – Konpetentzien gida*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

MUGIKORTASUN SEGURUA ARTE HEZKUNTZAKO CURRÍCULUMEAN

Derrigorrezko Hezkuntzaren helburua da **persona era integralean eta harmoniatsuan garatzea**, alderdi intelektualean, afektiboan eta sozialean.

Heziketa artistikoa lotuta dago, besteak beste, pertzepzioa, sormena, irudimena, ideiak eta emozioak adierazteko modu berritzaile eta originalen bilaketa eta komunikatzeko eta sozializatzeko gaitasuna garatzearekin, trebetasun horiek **autonomia, inteligentzia emozionala eta pentsamenduaren dimentsio kritikoa garatzeko aukera ematen baitute.**

Arte mota guztiak **ideiak komunikatzeko eta transmititzeko modu gisa** interpretatu behar dira, haien bi dimentsioen bitartez: produkzioa eta gogoeta (hartailea).

Bi dimentsio horiek zuzenean aplikatu dakizkioke mugikortasun seguruari, komunikatzeko, mugitzeko eta errealitatea behatzeko, analizatzeko eta interpretatzeko trebetasunen bitartez.

Zer dute berbera kompetentzia artistikoen ikaskuntzak eta mugikortasun segururako hezkuntzak?

1. BALIOAK

Mugikortasun segururako hezkuntzak, trafiko-istripuak eta horien larritasuna murrizteko estrategia gisa ulertuta, istripuen **prebentzio**ko elementu aktiboa pertsona izan dadin du helburu.

Horren ildotik, berebiziko garrantzia dauka pertsonak bide-ingurunea behatzeko, analizatzeko eta bertan bere kabuz moldatzeko (autonomia) daukan gaitasunak, baita ingurune hori ulertzeko eta gogoeta egiteko konpetentziak ere.

Bai konpetentzia artistikoa bai mugikortasuna etengabe eboluzionatzen ari dira, teknologiaren aukera eta ekarpen berriei lotuta: automobil elektrikoak, gidaririk gabeko autonomoak, eta segurtasunaren arloko berrikuntzak.

Konpetentzia horren garapenak eragin berezia dauka talde-lanean, lan-prozeduren plangintzan eta sistematizazioan, teknika zehatzen aplikazioan eta espazioen erabilera egokian. Horrez gain, artea tresna egokia izan daiteke ingurumenaren inguruko era guztietako arazoaren aurrean nor bere burua adierazteko eta erantzunak emateko.

2. TREBETASUNAK ETA EGITEN JAKITEA

Heziketa artistikoen arloko trebetasunak mundu fisikoaren ezagutza eta interakzio handiagoa errazten dute. Pertzepzio-prozesuetatik ez ezik, metodo zientifikoarekin lotutako prozeduren bitartez ere: behaketa, esperimendazioa, deskubrimendua, analisia, gogoeta... Bai heziketa musikala bai plastikoa ingurune fisikoaren erabilteko sormenerako aitzaki gisa; esploratu, manipulatu, bereganatu, pentsatu eta birstatu egiten dute, dimentsio berri bat emateko.

Baliabide musikala edo plastikoa erabiliz ingurune naturalari buruz giza-erakundeak dituen bertsoak ikasgelako lanaren xede izaten dira.

Mugikortasun segururako hezkuntza: Konpetentzien gida dokumentuan istripuen prebentziorako jasotako hezkuntza-ereduak etengabe egiten dio erreferentzia garapen pertsonal eta sozialaren "ezaguera praktikoari."

HONETAN ERE... SEGURU

Arte Hezkuntza eta Mugikortasun segururako jarduerak

Lehen Hezkuntza

3. HELBURUAK

Arte Hezkuntzaren arloko etapa-helburuak hauek dira:

1. Arteek eta kultura bisual eta musikalaren produktuek ideiak, sentimenduak eta bizipenak komunikatzeko eta adierazteko dituzten aukerak ulertzea eta komunikaziorako, gogoeta kritikorako eta autokonfiantzarako gaitasuna garatzen laguntzea.
2. Arte-lengoaiei tekniken, baliabideen eta konbentzioen oinarritzko ezagutza edukitzea eta teknologiek eskaintzen dizkieten aukerak bereganatzea, beren sorkuntza-lanetan eta beren erantzunen elaborazioan erabiltzeko.
3. Kultura bisualeko eta musikaleko lanetan arte-forma desberdinen teknikak, baliabideak eta konbentzioak ezagutzea eta baloratzea, horiek hobeto ulertu eta gozatzeko eta erreferente estetiko berrien garapena ahalbidetzeko.
4. Pentsamenduaren, ekimenaren, irudimenaren eta sormenaren trebetasunak erabiltzea, beren eta besteen sentimenduetan edo beste artelan batzuetan oinarritutako ideiak berriro landuz beren ekoizpen-lanak aberasteko.
5. Beharrezkoak diren prozesuak planifikatu, ebaluatu eta doitzea sormen-proiektuen eta lanen garapenean emaitza zehatzak lortzeko, betiere horrek dakartzan erronken jakitun izanik.
6. Kultura bisualeko eta musikaleko arteen eta produktuen gizarte-funtzioak eta erabilerak ezagutzea eta beren eta besteen esperientzietan horiek hautematea, denbora- eta kultura-testuinguru desberdinetan bete dezaketan eta bete duten papera ulertzeko.

7. Landutako ekoizpenen arteko erlazioak ezartzea, soinu eta irudietatik eta sortu diren ingurune fisiko eta sozialaren ezaugarrietatik abiatuz, eta horiek modu kritikoan analizatzea pertsonen bizitzan duten oihartzuna eta esanahia ulertzeko.
8. Taldekako arte-jardueretan parte hartzea, erantzukizunak bereganatuz eta besteen ekimenak eta ekarpenak baloratuz, lankidetzarako eta talde-lanerako trebetasunak garatzeko, zeinak emaitza artistiko egokia lortzera baitaude zuzenduta.
9. Konfiantza garatzea beren arte-elaborazioetan, horiek egiterakoan gozatzuz eta hazkunde pertsonalari eta taldearenari egiten dion ekarpena estimatuz, norberaren estimua finkatzeko eta ideiak eta sentimenduak adierazteko gaitasuna hobetzeko.
10. Euskadiko eta beste herrialdeetako ondare kulturalaren adierazpen artistikoak ezagutzea eta baloratzea, haien adierazpideen kontserbazioan eta berrikuntzan laguntzeko, betiere jakitun izanik beste kulturekiko trukeak eta arte-esperientzia partekatuek aberastu egiten dutela.

Dokumentu honetan proposatutako jarduera guztiek zuzeneko lotura dute helburu horiekin.

4. PARTE HARTZEKO METODOLOGIA

Arte-hezkuntza oinarritu behar da metodo zientifikoa jasotzen duten proposamen metodologikoetan eta esperientziazio eta praktikarako espazioen sorta zabal batean, eta arte-hizkuntzei dagozkien teknika- eta adierazpen-baliabideak erabili behar ditu.

Proposatutako metodologia gehienbat aktiboa da; horren bidez, beste edozein gaitan ez bezala, ezagutzek eta ezagutze-prozesuek interakzioan dihardute trebetasunekin eta jarrerekin: jardueraz eta bizitzaz gozatzea pertsonaren eta taldearen hazkunderi egiten dion ekarpena areagotzen duen ezaugarri erkidea da.

Dokumentu honetan proposatutako jardueren lehentasuna esperientzia esanguratsu bat bizitzea da, non, behaketaren, ekoizpenaren eta analisiaren bidez, ikasleak beren ondorioetara iristen baitira mugikortasun segururako nahitaezkoak diren jarrereri buruz.

5. EDUKIAK

Lehen Hezkuntzari dagozkion adierazpen-, prozedura- eta jarrera-edukiak gai multzo hauetan taldekatzen dira:

- 1. multzoa. Eduki erkideak.
- 2. multzoa. Entzumen-hautematea eta musika-ulermena
- 3. multzoa. Musika-espresioa, interpretazioa eta sorkuntza.
- 4. multzoa. Erreferente plastiko eta bisualen pertzepzioa, ulerkuntza eta interpretazioa.
- 5. multzoa. Plastika- eta ikusmen-artearen ekoizpena, adierazpena eta sorkuntza.

HONETAN ERE... SEGURU

Arte Hezkuntza eta Mugikortasun segururako jarduerak

Lehen Hezkuntza



LEHEN ZIKLOA



ARTE-HEZKUNTZA – LEHEN HEZKUNTZA: LEHEN ZIKLOKO EDUKIAK

	JARDUERAK				
	1	2	3	4	5
1. MULTZOA. EDUKI ERKIDEAK					
Gorputz-dimentsioaren auto-erregulazioa.	●				●
Emozioen autorregulazioa.	●	●	●		
Portaera moralaren autorregulazioa.			●	●	●
Emaitza komunikatzea.	●			●	●
2. MULTZOA. ENTZUMEN-HAUTEMATEA ETA MUSIKA-ULERMENA					
Soinu-iturriak ikertzea eta ingurune natural eta sozialeko soinuen ezaugarriak bereiztea.			●		
Soinuaren eta hori sortzen duten soinu-iturrien aukerak aztertzea eta horien ezaugarriak identifikatzea.		●	●		●
Musikan eta besteekiko elkarbizitzan isiltasunak duen garrantzia balioestea.		●			
3. MULTZOA. MUSIKA-ESPRESIOA, INTERPRETAZIOA ETA SORKUNTZA					
Ahotsaren, gorputzaren, objektuen eta naturako soinuen aukerak esploratzea.		●	●		
Koordinazio eta sinkronizazio indibiduala eta kolektiboa ahozko interpretazioan eta tresna- zein gorputz-bidezkoan.		●	●		
Ahozko interpretazioaz eta tresna- zein gorputz-bidezkoaz gozatzea.		●	●		
4. MULTZOA. ERREFERENTE PLASTIKO ETA BISUALEN ULERKUNTZA, PERTZEPZIOA ETA INTERPRETAZIOA					
Ideiak, sentimenduak edo emozioak azaltzeko, irudiak eta beste arte-adierazpen batzuk erabiltzeko beharra identifikatzea.	●	●	●	●	●
Ingurune naturalean, artifizialean eta artistikoan dauden elementuen behaketa eta esplorazio sensoriala.	●	●	●	●	●
Testurak eta tonalitateak sailkatzea eta forma naturalak eta artifizialak hautematea.				●	
5. MULTZOA. PLASTIKA- ETA IKUSMEN-ARTEEN EKOIZPENA, ADIERAZPENA ETA SORKUNTZA					
Plastika-lanetan testurek, koloreek eta formek dituzten funtzioak eta aukerak behatzea eta iruzkintzea.	●			●	●
Artea errealizatzeko eta egikaritzeko norberak dituen aukeretan konfiantza izatea eta nork bere ekoizpenak eta besteak baloratzea.	●				●
Atzak bereganatzeko prestasuna izatea eta talde-lanerako ezarritako arauak errespetatzea.	●	●	●	●	●

HONETAN ERE... SEGURU

Arte Hezkuntza eta Mugikortasun segururako jarduerak

Lehen Hezkuntza

LEHEN ZIKLOA MUGIKORTASUN SEGURURAKO LOTURA DUTEN JARDUERAK ETA GAITASUNAK

MUGIKORTASUN SEGURURAKO GAITASUNAK	JARDUERAK				
	1	2	3	4	5
Arreta	●	●	●	●	●
Zaugarritasunaren eta arriskuaren kontzientzia	●		●	●	●
Ingurunearen azterketa			●	●	●
Taldeko presioarekiko erresistentzia		●	●		
Egokitzapena eta malgutasuna		●	●	●	●
Neure buruaren eta nire emozioen kudeaketa	●	●	●		●
Bideari lotutako egoeretan estresa kudeatzea			●		

HONETAN ERE... SEGURU

Arte Hezkuntza eta Mugikortasun segururako jarduerak

Lehen Hezkuntza

1. JARDUERA ESKUTIK HELDUTA JOATEA

HELBURUAK


- Prebentzio-neurriak hartzearen garrantziari buruz gogoeta egitea, bereziki bide-arrisku handieneko egoeretan.
- Norberaren emozioez, emozioak autorregulatzeko beharraz eta gorputz-dimentsioaz jabetzea.

METODOA

Jolas analogikoa, banakako lana, taldeko eztabaida.

MATERIALA

- Kolorezko 2 folio edo paper.
- Eskolarako bi artazi.
- Barrako kola.
- Arkatza.
- Kolorezko errotuladoreak.



GARAPENA

Jarduera hau gelaren barruan edo patioan hasi ahal izango da. Hezitzaileak galdera hauek planteatzen dizkio ikasgelako taldeari:

- Zer duzue nahiago, kalean pertsona batekin eskutik helduta ibili, ala bakarrik?
- Zein da zuen "esku gogokoena" kalean ibiltzeko?
- Zer egiten duzue eskutik helduta zabilatzenean?

Hezitzaileak ariketa labur bat proposatzen du; ikasle bakoitzak ikaskide bat hartzen du, eskutik heltzen dio, eta horrela ibiltzen da, kalean bere esku gogokoenetik helduta ibiltzen den modua imitatuz. Minutu pare baten ondoren, rolak trukatu egiten dira.

- Kalean eskutik helduta zabilatzanean, zer sentitzen duzu? Segurtasuna, asperdura, babesa...
- Zer egiten duzu kaletik bakarrik zabilatzanean?

Gero, ikasle bakoitza espazioan mugitzen da, kalean eskutik heldu gabe ibiltzeko duten modua imitatuz. Minutu batzuk geroago, gogoeta egiten da, gai hauei buruz:

- Nola sentitzen zarete bakarrik zabilatzenean?
- Zuen ustez, zergatik tematzen dira hainbeste helduak eskutik helduta joateko?
- Arriskua dagoela uste duzue? Zer arrisku? Zuen ustez, esku batek babestu zaitzakete arriskutik?

Elkarrizketa bide-arriskueta arantz gidatuko da; adibidez, auto bat edo bizikleta bat igarotzea, edo begiratzen ez duen eta despistatuta doan eta zapaldu eta bultzatu gaitzakeen norbait... Garrantzitsua da eskutik helduta joatea **trafikoa edo jende asko dagoenean eta, bereziki, kalea edo bizikleta-bidea gurutzatu edo espaloitik jaitsi behar dugunean.**

Esku gogokoenak, nahiz eta batzuetan aginduak ematen dizkigun eta tira egin eta azkar eramaten gaituen, bide-arriskueta salbatzen gaitu askotan, eta segurtasun handiagoa ematen digu gure joan-etorrietan.

Eduki erkideak

Entzumen-hautematea eta musika-ulermena
Musika-espresioa, interpretazioa eta sorkuntza

Erreferente plastiko eta bisualen ulerkuntza, pertzepzioa eta interpretazioa

Plastika- eta ikusmen-arten ekoizpena, adierazpena eta sorkuntza

HONETAN ERE... SEGURU

Arte Hezkuntza eta Mugikortasun segururako jarduerak

Lehen Hezkuntza ○○○


Hezitzaileak jarduera azaltzen du: esku gogokoenari omenaldi bat, opari bat, egitea da ideia, kalean gabiltzanean laguntzen digulako.

Ikasle bakoitzak esku-formako bi zabalgarri egingo ditu, jarraibide hauen arabera:


ONDORIOAK

Hezitzaileak bi ondorio aterako ditu amaitzeko:


- Pertsona bati eskutik heltzeak sentsazio atsegina eta segurtasuna ematen digu.
- Bide-arriskuko egoera jakinetan (adibidez, arriskutsuak izan daitezkeen bidegurutze ezezagunetan), heldu baten eskuari heltzea lasaigarria izan daiteke, eta gure joan-etorriak seguruak izan daitezten bermatu.




Tolestu kolorezko folio bat erditik.




Marraztu eskuaren profil bat eta ebaki ertzetik. Bi esku berdín lortuko dituzu.




Moztu tira bat beste kolore bateko paperean, eta akordeoi moduan tolestu, 2 zentimetro inguruko zabalarekin.



Tiran eta/edo eskuan mezu bat idatzi dezakezu.



Itsatsi tiraren mutur bakoitza eskuetako bakoitzean.



Eta hor duzu zure "esku gogokoa"!

1. JARDUERA

ESKUTIK HELDUTA JOATEA

HONETAN ERE... SEGURU

Arte Hezkuntza eta Mugikortasun segururako jarduerak

Lehen Hezkuntza ● ○ ○

2. JARDUERA DOINUAREKIN IBILTZEN

HELBURUAK

- Doinu, erritmo eta musika-estilo desberdinak ezagutzea.
- Musikari lotuta, egoera emozionala identifikatzea.
- Segurtasunagatik eta autobabesagatik, emozioen autorregulazioak duen garrantziak jabetzea.

METODOA

Banakako eta taldeko lana.

MATERIALA

- Musika-ekipoa edo bozgorailudun ordenagailua.
- Doinu azkarrak eta doinu motelak (2.1. eranskina)
- Emotikono ebakigarriak (2.2. eranskina)




GARAPENA

Emozioek eta gogo-aldarteek eragina dute gure portaeran. Gure emozioetan, eta, beraz, gure portaeran, eragina izan dezakeen elementu bat **musika** da.

Jarduera horretan lau kanta entzungo dira: ikasleak mugitu daitezke, edo dantzatu, edo musikak iradokitzen dizkien jarduerak egin: marraztu, etzan, lo egin...

Musika geratzen den bakoitzean, ikasleek gelditu egin behar dute. Hezitzaileak, musika geratu aurretik, kontuan izango du taldea hautatutako jardueran murgilduta dagoela.


Musika geratzen denean, galdera hau egiten da:

 Zer emotikono iradokitzen dizue musika honek?

Hezitzaileak banan-banan erakusten die emotikono bakoitza ikasleei, eta musikak iradokitzen dien emotikonoa agertzean eskua altxatzeko eskatzen die.

Prozesu hau errepikatu egingo da melodietako bakoitzarekin.

Gero, galdera hauek planteatzen dira:

- 
- Erraza izan da gelditzea musika geratu denean? Zer musikarekin da errazagoa jarduera gelditzea?
 - Entzun dituzuen doinu horietatik, zein duzue nahiago parkean jolasteko? Zer emotikono jarriko zenuke egoera horretarako?
 - Entzun dituzuen doinu horietatik, zein duzue nahiago eskolara joateko? Zer emotikono jarriko zenuke?
 - Klean erritmoarekin bagabiltza eta zebrabide batera edo semaforo batera iristen bagara, erraza ala zaila izango zaigu gelditzea? Eta bi aldetara begiratzea eta gurutzatu ala ez erabakitzea?



Eduki erkideak

Entzumen-hautematea eta musika-ulermena

Musika-espresioa, interpretazioa eta sorkuntza


Erreferente plastiko eta bisualen ulerkuntza, pertzepzioa eta interpretazioa

Plastika- eta ikusmen-arten ekoizpena, adierazpena eta sorkuntza

HONETAN ERE... SEGURU

Arte Hezkuntza eta Mugikortasun segururako jarduerak

Lehen Hezkuntza ○○○



Une honetan, hezitzaileak azaltzen du nola askotan kostatzen zaigun gehiago gelditzea doinu azkarra eta alaia denean motela denean baino. Era berean, kalean saltoka, oihuka eta/edo korrika gabiltzanean, zailagoa da guretzat gurutzatu aurretik **gelditu eta begiratzea**. Paseoko abiaduran bagatoz, errazagoa da oinezkoen pasabide baten aurrean gelditzea.

Puntu honetan, hezitzaileak *Bat Bi Hiru Eguzki!* jolasaren antzeko bat proposatzen du: boluntario bat, hormara begira, musika hasten denean biratu egiten da. Gainerakoek musikaren erritmoan dantzatuko dute, dauden lekutik mugitu gabe. Norbaitek erritmoa jarraitzen ez duela ikusten badu, pertsona horrek "beteko" du; hau da, bete (txita, zigortua, itsu...) izango da (jolas honetan, paretara begira dagoen pertsona), eta musika aldatu ere egingo da, hautatutako lau kantuetako beste batera.

ONDORIOAK

Hezitzaileak ideia hauekin amaituko du:

- Nolabaiteko arriskua duten trafiko-egoera desberdinen aurrean, funtsezkoa da arreta sustatzen duen egoera emozionalean egotea.
- Hori dela-eta, analogia bat egin behar da jolasean gertatzen denaren eta kalean gertatzen denaren artean: badaude leku seguruagoak, non "jolastu" baikeitezke arriskuak txikiagoak direlako, eta leku arriskutsuagoak, non gure zentzumen guztiek bide-segurtasunari begira egon behar baitute.



2. JARDUERA DOINUAREKIN IBILTZEN

HONETAN ERE... SEGURU

Arte Hezkuntza eta Mugikortasun segururako jarduerak


Lehen Hezkuntza ●○○

1. ERANS-KINA

DOINUAK

Doinu batzuk gomendatzen ditugu jarduera egiteko.

DOINU "AZKARRAK":



Berako makil dantzak.
Makila-dantza.

<https://www.youtube.com/watch?v=4FT3OF5KXqc>



Esne beltza.
Euskaraz bizi nahi dut.

https://www.youtube.com/watch?v=i1yBZh4G-bw0&list=RDEM6B1QQT-mjy1NBNU_K4wcdA

DOINU "MOTELAK":



Errobi.
Gure sortea.

<https://www.youtube.com/watch?v=sKFYLVDAJpG&list=PLxaB3ue1sKHquTbe6ifjSympdBSZ899T-&index=3>



Zea mays+euskadiko orkestra sinfonikoa:
"Elektrizitatea".

<https://www.youtube.com/watch?v=oYx0Z1oMmxU>

2. JARDUERA

DOINUAREKIN IBILTZEN

HONETAN ERE... SEGURO

Arte Hezkuntza eta Mugikortasun segururako jarduerak

Lehen Hezkuntza ○○○

2. ERANS-KINA

EMOTIKONOAK

Hezitzaileek zazpi emotikono izango dituzte, gogo-aldarte nagusiak ordezkatzeko. Emotikonoak arbel digital batean proiektatu litezke. Hemen, paperezko aukera bat planteatzen da, mozteko.



Irribarrea



Alaitasuna



Haserrea



Tristura



Negarra



Sorpresa



Beldurra

2. JARDUERA DOINUAREKIN IBILTZEN

HONETAN ERE... SEGURU

Arte Hezkuntza eta Mugikortasun segururako jarduerak

Lehen Hezkuntza ● ○ ○















3. JARDUERA MUGIKORTASUNAREN SOINUAK

HELBURUAK

- Mugikortasunean ohikoak diren soinuak bereiztea eta identifikatzea.
- Soinuak identifikatzea sortzen duten arrisku-pertzepzioarekin eta alertarekin.
- Gure joan-etorrietan entzumenak duen garrantziaz jabetzea.

METODOA

Banakako eta binakako lana. Talde-eztabaida.

MATERIALA

- Arkatza.
- Arriskumetroaren fitxa. (3.1. eranskina)
- Soinuak. (3.2. eranskina)



GARAPENA

Saioa baino egun bat lehenago, eskolatik etxerako bidean dauden soinuei arreta berezia jartzeko eskatuko dio hezitzaileak taldeari.


Ikasle bakoitzak "arriskumetroaren" fitxa jasoko du (arrisku-pertzepzioaren termometroa). Hezitzaileak **arrisku-pertzepzioaren** kontzeptua sartzen du, eta **arrisku-sentsazioarekin** eta **beldurra eragiten diguten** edo alerta-egoeran jartzen gaituzten egoerekin lotzen du.

Horren ondoren, soinu batzuk entzuten dira. Taldeak identifikatu behar du soinua artifiziala den eta zeri dagokion; adibidez, anbulantzia baten sirenari. Erantzun desberdin asko badaude, hezitzaileak pistak eman ditzake, edo zuzenean esan zerk edo nork sortzen duen soinu hori.

Behin soinua identifikatuta, soinuaren izena idatziko dute, banaka, haien arrisku-pertzepzioak iradokitzen dien *arriskumetroaren* lekuan. Ekintza hori soinuetako bakoitzarekin errepikatzen da: soinua eta jatorria identifikatu, haren arrisku-maila graduatu eta izena arriskumetroan idatzi.

Lan hori amaituta, beren *arriskumetroak* konparatzen dituzte, bikoteka. Berdinak dira? Bat datoz lehen eta azken lekuak?

Konparazioaren ondoren, hezitzaileak zenbait galdera egiten dizkio gelako taldeari.

- 
- Zein da alerta handiena sortzen dizuen soinua? Eta txikiena?
 - Klean zabiltzatenean, arreta jartzen diezue inguruko soinuei, edo belarria erabili gabe ibiltzen zarete?
 - Entzundako soinuetatik, zein da ohikoena zuen mugikortasunean?
 - Zer egiten duzue entzuten duzunean? Zerbateko beldurra edo alerta eragiten dizue?



Eduki erkideak

Entzumen-hautematea eta musika-ulermena

Musika-espresioa, interpretazioa eta sorkuntza


Erreferente plastiko eta bisualen ulerkuntza, pertzepzioa eta interpretazioa

Plastika- eta ikusmen-arteen ekoizpena, adierazpena eta sorkuntza

HONETAN ERE... SEGURU

Arte Hezkuntza eta Mugikortasun segururako jarduerak

Lehen Hezkuntza ○○○



Mugikortasunaren soinuek alertan jartzen gaituzte, baina trafikoaren, frenoen edo klaxonen soinetara ohitzen gara.



- Zein da soinu horien guztien funtzioa? Ohitzen bagara, funtzio hori betetzen dute?
- Zer duzue nahiago, horrelako soinu asko dituen hiria, ala gutxiago dituen? Zergatik?

Hemen hezitzaileak kutsadura akustikoaren kontzeptua sar dezake, eta gizakiarengan eragin ditzakeen ondorio fisikoak aipatu, hala nola estresa, nekea, etab.

ONDORIOAK

Soinuek oinarrizko funtzio bat betetzen dute: arriskuez ohartarazten eta babesten gaituzte.

Hala ere, soinuek bere eginkizuna bete dezaten, **guk ere lagundu behar dugu:**

- Soinuei arreta jarri.
- Distrakzioak eta kaleko soinuek ematen diguten informazioa gutxitzen edo ezabatzen duten elementuak baztertu (kaskoak, aurikularrak...)

Funtsezkoa da soinuak erabiltzea bakarrik beharrezkoak direnean, beren funtzioa betetzen dutela bermatzeko. Elementu horiek gehiegi erabiltzeak beste arrisku batzuk eragin ditzake.

3. JARDUERA

MUGIKORTASUNAREN SOINUAK

HONETAN ERE... SEGURU

Arte Hezkuntza eta Mugikortasun segururako jarduerak


Lehen Hezkuntza ● ○ ○

1. ERANSKINA

ARRISKUMETROAREN FITXA

Entzun soinua arretaz eta identifikatu zer objektuk eragiten duen, zure ustez *arriskumetroan* dagokion lekuan idatzi, iradokitzen dizun "arrisku" mailaren arabera.

Adibidez, "kroak-kroak" entzuten badugu, igel edo apo batek eragiten du; horrek arrisku "txikia" iradokitzen dit niri, ez baita abere arriskutsua.



3. JARDUERA

MUGIKORTASUNAREN SOINUAK

HONETAN ERE... SEGURU

Arte Hezkuntza eta Mugikortasun segururako jarduerak

Lehen Hezkuntza ● ○ ○

2. ERANSKINA

SOINUAK

Jarraian, zenbait soinu eta horiek entzuteko Youtubeko estekak zerrendatzen dira.

Askotariko soinuak



<https://www.youtube.com/watch?v=Er8gchlRDA>



<https://www.youtube.com/watch?v=5adpabMOMyM>



<https://www.youtube.com/watch?v=CaEjxqfn5Jo>

Ekaitz-soinuak



https://www.youtube.com/watch?v=Z_fEKap24wU

Ekaitzaren eta animalien soinuak



<https://www.youtube.com/watch?v=U-HyIpY4nxul>

Tximisten eta trumoiaren soinuak



<https://www.youtube.com/watch?v=WI0s9euRtCE>

Trafiko-soinuak



<https://www.youtube.com/watch?v=QvlquKfE5Zk>



<https://www.youtube.com/watch?v=EgKGk2DH5yQ>

Pasatzen den auto baten soinua



<https://www.youtube.com/watch?v=2t0X32tMUt0>

Askotariko klaxon-soinuak



https://www.youtube.com/watch?v=Ifg6o_X4pNQ



https://www.youtube.com/watch?v=okONufrL_nw

Hizketan ari den jendearen soinua



<https://www.youtube.com/watch?v=4aBHiNVi6Ck>

Bizikleta-soinua



<https://www.youtube.com/watch?v=LODs6ejttLY>

3. JARDUERA

MUGIKORTASUNAREN SOINUAK

HONETAN ERE... SEGURU

Arte Hezkuntza eta Mugikortasun segururako jarduerak

Lehen Hezkuntza

4to JARDUERA TESTURAK ETA BIDEAK

HELBURUAK


- Testura desberdinak identifikatzea, galtzada mota desberdinen bidez.
- Kalteberatasuna eta eroriko batek buruan eragin diezagukeen kaltea baloratzea.

METODOA

Talde-eztabaida.

MATERIALA

Testura desberdinen laginak dituzten elementuak (lisoa, zimurtsua, leuna, latza, gogorra, biguna...). Adibidez; baldosa bat, adreilu bat, apar-harria, zetazko oihala, belakia, etab.



GARAPENA

Hezitzaileak testura desberdineko elementuak banatuko ditu, bakoitzak eragiten dizkien sentazioez hitz egin dezaten. Horren ondoren, zoru edo galtzara desberdinak aipatuko ditu, eta taldeak deskribatu beharko du testura bakoitza nolakoa den. Jarduera errazteko, adibide bat ematen da:



Hirian autoak ibiltzeko dagoen galtzadako *asfaltoa*, nolakoa da?



- Leuna, ala latza?
- Lisoa ala zimurtsua?
- Gogorra ala biguna?
- Ibilgailuak erraz ala nekez ibiltzen dira?
- Asfaltoan ibiltzerik bagenu, ondo ala gaizki ibiliko ginateke?
- Eta korrika egiterik bagenu? Testurak korrika egitea errazten du, ala ez?
- Eta oso azkar bagoaz, autoan izan zein korrika izan, erraz frenatzen dela uste duzue? Galtzada-testura horretan, zer da errazagoa, korrika egitea, ala frenatzea?
- Zuen ustez, pertsona bati gertatzen zaion gauza bera gertatzen zaio ibilgailu bati asfaltozko galtzada batean frenatzen saiatzen denean?
- Eta, erortzen banaiz? Zer gerta dakidake asfaltoan erortzen banaiz?

Eduki erkideak

Entzumen-hautematea eta musika-ulermena

Musika-espresioa, interpretazioa eta sorkuntza

Erreferente plastiko eta bisualen ulerkuntza, pertzepzioa eta interpretazioa

Plastika- eta ikusmen-arten ekoizpena, adierazpena eta sorkuntza


HONETAN ERE... SEGURU

Arte Hezkuntza eta Mugikortasun segururako jarduerak

Lehen Hezkuntza ○○○

Galdera horiek errepikatu daitezke testura eta galtzada mota desberdinekin: galtzada-harriak, lurrezko bidea, saskibaloi-kantxa bateko zementu leundua, hondartzako hondarra, leku harritsu bat, lokatzezko putzuak edo euriak bustitako espaloia.


Amaitzeko, gelako taldeak bere esperientziak partekatu ditzake lurzoru mota desberdinetan izandako erorikoen, ondorioen eta zaurien inguruan.



ONDORIOAK

Hezitzaileak ideia hauekin amaituko du:

- Mugitzen garenean, dela bizikletaz dela irristailuz, patinetez, ibilgailu motordunez edo korrika, istripuak izan ditzakegu, bereziki oso azkar goazenean eta "bat-batean" frenatu nahi dugunean.
- Mugitzen garenean dugun abiadura ondo neurtzea eta zapaltzen ari garen lurzoru mota aintzat hartzea funtsezko estrategia da geure burua babesteko eta izan litezkeen kalteak ahalik eta gehien murrizteko.



4. JARDUERA

TESTURAK ETA BIDEAK

HONETAN ERE... SEGURU

Arte Hezkuntza eta Mugikortasun segururako jarduerak

Lehen Hezkuntza ●○○


5. JARDUERA NIRE KALEA

HELBURUAK

- Jarduera artistiko kolektiboetan parte hartzea, erantzukizunak bereganatuz eta besteen ekimenak eta ekarpenak baloratuz.
- Behaketaren eta esplorazio sentsorialaren bitartez, ingurune naturalean, artifizialean eta artistikoan dauden elementuak identifikatzea.
- Seinaleak ezagutzea eta leku seguruak eta ez-seguruak bereiztea.

METODOA

Ideia-jasa. Banakako lana. Elkarriketa gidatua Ondorioak bateratzea.



MATERIALA

- Biltzeko papera, 3 metro gutxienez.
- Ebakigarriak (*Eranskina*).
- Koloretako arkatzak edo argizariak.
- Pinturak.
- Barrako kola.
- Eskola-artaziak.

GARAPENA

Jarduera honetan horma-irudi bat egiten da biltzeko paperarekin; bertan inguruneke elementu desberdinak jarriko dira: etxeak, zuhaitzak, autoak, oinezkoen pasabidea, iturriak, etab.

Hasteko, kaleari buruzko aurretiko ezagutza aktibatzen da, bertan zer elementu dauden eta zertarako balio duten galdetuz (seinaleak, dendak, ikastetxeak, parkeak edo berdeguneak, hiri-altzariak: farolak, banketxeak, paperontziak, etab.)

Ikasle bakoitzak ebakigarri batzuk eta horma-irudi bat izango du; horma-irudian kale bat baino ez da egongo marraztuta. Pertsona bakoitzak inguruneke elementuak koloreztatu eta ebakiko ditu, eta, **itsatsi gabe**, berari dagokion horma-irudian jarriko ditu.

Hezitzaileak estrategia desberdinak iradoki ahal izango ditu materiala jartzeko: hasieran pieza handienak jartzea kalearen oinarria eraikitzeko, eta gero ebakigarri txikiak eta mugikortasunarekin lotutakoak. Elementuak jartzen laguntzeko, galdera pertsonalizatuak egin ahal izango ditu:

Non jarri nahi duzu zure ebakigarria? Zergatik?

Piezak horma-irudian jarrita, honako galdera hauek egiten zaizkio ikastaldeari:

Zer eraikin edo objektu daude parkearen inguruan? Eta ikastetxe baten inguruan?

Zuen horma-irudian kalea gurutzatu nahi badugu, parkera joateko adibidez, zer ibilbide diseinatuko zenuke seguru izateko?

Helburua hau da: ikasleek berraztertzea lehen kontuan izan ez dituzten aldagaiak. Hori dela-eta, ebakigarriak mugitu daitezke, gune eta ibilbide seguruagoak sortu arte.

Behin horma-irudia aldatuta, kalea gurutzatzeko ibilbide seguruena itsatsi eta marraztu daiteke, koloretako "gometsak" erabiliz.

Eduki erkideak

Entzumen-hautematea eta musika-ulermena

Musika-espresioa, interpretazioa eta sorkuntza

Erreferente plastiko eta bisualen ulerkuntza, pertzepzioa eta interpretazioa

Plastika- eta ikusmen-arten ekoizpena, adierazpena eta sorkuntza

HONETAN ERE... SEGURU

Arte Hezkuntza eta Mugikortasun segururako jarduerak

Lehen Hezkuntza ○○○

Horma-irudia amaituta, ikasle bakoitzak egindakoa bateratzeari ekingo zaio, eta gune seguruaren eta ez-seguruaren oinarritzko kontzeptua sartzen da.

Jarduera baino lehen, eta aukera osagarri gisa, eskolatik kanpora atera daiteke auzoa ezagutzeko eta elementu esanguratsuak identifikatzeko; gero, elementu horiek horma-irudian gehitu, kendu edo aldatu ere egin daitezke.

ONDORIOAK

Hezitzaileak ideia hauekin amaituko du:

- Horma-irudian, gure eguneroko ingurunean bezala, gune batzuk seguruagoak dira beste batzuk baino.
- Gune seguruak erabiltzeak ezusteko askotatik libratuko gaitu.
- Edonola ere, ustekabeak edozein unetan gerta daitezke. Horien aurrean, eta prebentzio-neurri gisa, errezeta onena arreta ez galtzea da.



5. JARDUERA NIRE KALEA

HONETAN ERE... SEGURU




Arte Hezkuntza eta Mugikortasun segururako jarduerak

Lehen Hezkuntza ○○○

1. ERANSKINA

EBAKIGARRIAK

Margotu eta ebaki figurak, gero jar itzazu horma-irudian, gainerako marrazkiak kontuan hartuta.











5. JARDUERA NIRE KALEA

HONETAN ERE... SEGURU

Arte Hezkuntza eta Mugikortasun segururako jarduerak

Lehen Hezkuntza ●○○




5. JARDUERA NIRE KALEA

HONETAN ERE... SEGURU

Arte Hezkuntza eta Mugikortasun segururako jarduerak

Lehen Hezkuntza ●○○




5. JARDUERA

NIRE KALEA

HONETAN ERE... SEGURU

Arte Hezkuntza eta Mugikortasun segururako jarduerak

Lehen Hezkuntza ●○○



5. JARDUERA NIRE KALEA

HONETAN ERE... SEGURU

Arte Hezkuntza eta Mugikortasun segururako jarduerak

Lehen Hezkuntza ●○○

35



BIGARREN ZIKLOA

ARTE-HEZKUNTZA – LEHEN HEZKUNTZA:

BIGARREN ZIKLOKO EDUKIAK

	JARDUERAK				
	6	7	8	9	10
1. MULTZOA. EDUKI ERKIDEAK					
Idea, zeregin eta proiektuen plangintza eta bideragarritasunaren azterketa.	●	●		●	
Emozioen autorregulazioa.	●	●		●	
Portaera moralaren auto-erregulazioa.		●	●		●
Emitza komunikatzea.	●	●	●	●	●
2. MULTZOA. ENTZUMEN-HAUTEMATEA ETA MUSIKA-ULERMENA					
Inguruneko soinuak esploratzea eta zarata- eta kutsadura-egoerak identifikatzea.					●
Jarrera kritikoa eraso akustikoen aurrean eta ekarpen aktiboa horren dimentsiora eta ongizate pertsonal eta kolektibora.					●
3. MULTZOA. MUSIKA-ESPRESIOA, INTERPRETAZIOA ETA SORKUNTZA					
Ikus-entzunezko baliabideak eta informatika-baliabideak erabiltzea musika-piezak sortzeko, irudiei eta antzezpenei soinua jartzeko eta ikasgelak interpretatutako musika grabatzeko.					●
Ahots-, instrumentu- eta gorputz-interpretazioa, estimulu musikalen eta musikaz kanpokoaren aurrean.					●
4. MULTZOA. ERREFERENTE PLASTIKO ETA BISUALEN ULERKUNTZA, PERTZEPZIOA ETA INTERPRETAZIOA					
Objektu eta elementu naturalen posibilitate plastiko eta espresiboei buruzko ikerketa.	●		●	●	
Espazioaren errepresentazioak arlo edo esparru desberdinetan hartzen dituen formen arteko konparazioa, bete behar duten funtzioaren arabera (teknikoa, informatiboa...)	●				●
Irudi eta adierazpen artistikoen analisiarekiko eta balorazioarekiko jarrera irekia eta malgua.	●		●	●	
5. MULTZOA. PLASTIKA- ETA IKUSMEN-ARTEEN EKOIZPENA, ADIERAZPENA ETA SORKUNTZA					
Obrak egitea, ideiak eta sentimenduak adierazteko teknika mistoak erabiliz.		●	●	●	
Era askotako dokumentazioa (informazioa testu idatzietan, irudietan, artelanetan, gertuko inguruneko iturrietan...) bilatzea eta erabiltzea, banakako edo taldeko proiektu baten inguruan ikerketa-lanak egiteko.		●	●	●	
Prestasuna originala eta espontaneoak izateko eta ideiak, sentimenduak eta bizipenak artelan batean modu pertsonal eta autonomoan gauzatzeko.			●	●	
Konstantzia eta exigentzia progresiboa lana egiteko prozesuan, lankidetzan erantzukizunak hartuz, berrikuste-uneak ezarri, besteen ekarpenak errespetatuz eta desadostasunak argudioekin ebartziz.	●	●	●	●	●

HONETAN ERE... SEGURU

Arte Hezkuntza eta Mugikortasun segururako jarduerak

Lehen Hezkuntza

BIGARREN ZIKLOA MUGIKORTASUN SEGURURAKO LOTURA DUTEN JARDUERAK ETA GAITASUNAK

MUGIKORTASUN SEGURURAKO GAITASUNAK	JARDUERAK				
	6	7	8	9	10
Arreta	●	●	●	●	●
Zaugarritasunaren eta arriskuaren kontzientzia	●	●	●	●	●
Ingurunearen azterketa					●
Taldeko presioarekiko erresistentzia				●	●
Egokitzapena eta malgutasuna		●	●	●	●
Neure buruaren eta nire emozioen kudeaketa	●	●			
Bideari lotutako egoeretan estresa kudeatzea		●			●

HONETAN ERE... SEGURU

Arte Hezkuntza eta Mugikortasun segururako jarduerak

Lehen Hezkuntza

6. JARDUERA LABIRINTOA

HELBURUAK

- Arriskuaren pertzepzioa areagotzea, joan-etorrietan segurtasuna gehiago baloratzuz.
- Bide seguruari eta ez-seguruari buruz gogoeta egitea.
- Material desberdinak erabiltzea, perspektibako kontzeptuetan oinarrituz labirinto bat sortzeko.


METODOA

Kasua. Talde txikitan eztabaidatzea. Banakako lana.



MATERIALA

- Kartoizko kaxa ertain bat (oinetakoena, adibidez). Kaxaren tapa beharrezkoa izango da, labirintoa egiteko.
- Eskolarako artaziak edo kuterra.
- Barrako kola.
- Erregela.
- Koloretako errotuladoreak.
- Arkatza.
- Lastoak, kartoia edo izozki-makilak.
- Zinta itsaskorra.
- Puxtari bat edo bola pisutsu bat.
- Juneren kasua (eranskina)



GARAPENA

Hezitzaileak Juneren kasua irakurtzen du (ikus eranskina). Irakurri ondoren, talde txikitan galdera batzuei erantzuteko eskatzen die.



- Nola uste duzue sentitzen dela June egoera horretan? Zergatik?
- Zein da bide seguruena? Eta, arriskutsuena?
- Zer gerta liteke bide arriskutsuena aukeratuz gero?
- Zer gerta liteke bide luzeena aukeratuz gero?
- Zuen ustez, zer egingo du June? Haren lekuan egongo bazina, zer egingo zenuke?

Iritziak partekatu ondoren, bola edo puxtari baterako labirinto bat egitea proposatzen du hezitzaileak, non Juneren historiako bi bideak islatzen baitira: bat laburra eta arriskutsua, eta bestea luzea eta segurua, biak ondo bereizita.

Eduki erkideak

Entzumen-hautematea eta musika-ulermena
Musika-espresioa, interpretazioa eta sorkuntza

Erreferente plastiko eta bisualen ulerkuntza, pertzepzioa eta interpretazioa


Plastika- eta ikusmen-arten ekoizpena, adierazpena eta sorkuntza

HONETAN ERE... SEGURU

Arte Hezkuntza eta Mugikortasun segururako jarduerak

Lehen Hezkuntza ○ ○ ○


Proposamena sekuentzia honen arabera gara daiteke:



Hasteko, tapa edo kartoi zati handiago bat gordetzen dugu, oinarri gisa erabiltzeko.

Barruko aldean, errotuladorea eta erregela erabiliz, etxetik eskolara Junek dituen bi bideak marrazten ditugu: bat luzea eta bestea laburra.

Ibilbide laburrean zehar zulo batzuk egingo dira (puxtarría erori ahal izateko moduan) puxtarría helmugara (ikastetxea) iristea zailagoa (arriskutsuagoa) izan dadin.



Bide laburreko zuloak kontuz ebakitzen dira, justu puxtarríaren neurrian.


Labirintoaren hormak sortzeko, material birziklatua erabil daiteke; kartoia, lastoak edo izozki makilak.

Jolastu baino lehen, hezitzaileak eztabaida bat hasi dezake parte hartzaile bakoitzaren eskolabideari buruz, eta maketakoarekin (hau da, Junek erabiltzen duenarekin) duen antzari buruz.

ONDORIOAK

Hezitzaileak ideia hauekin amaituko du:

- Askotan pentsatzen dugu bide laburrena dela errazena eta azkarrena, baina batzuetan laburrena da arriskutsuena, eta azkenean bide luzea baino motelagoa izan daiteke.
- Ibilbideak aukeratzeko orduan, joateko denbora teorikoa ez ezik, aurkitu ditzakegun arriskuak eta haiei aurre egiteko ditugun baldintzak ere kontuan izan behar ditugu.



6. JARDUERA LABIRINTOA

HONETAN ERE... SEGURU

Arte Hezkuntza eta Mugikortasun segururako jarduerak

Lehen Hezkuntza ○ ● ○

1. ERANS-KINA

JUNEREN KASUA

Hezitzaileak galdera hau egiten du:

“June 9 urteko neska bat da. Aitarekin eta Unai 7 urteko anaiarekin bizi da. Eskola etxetik gertu samar dago, eta normalean biak oinez joaten dira. Orain arte aitarekin joan dira beti, baina lan-ordutegia aldatu diote, eta jadanik ezin die lagundu. Aitak uste du June neska arduratsua dela, eta konfiantza du harengan; horregatik, nahiz eta Unai txikiagoa izan, eskolara bakarrik joatea proposatu die. Juneri ideia ona iruditzen zaio; handia dela sentiarazten dio! Hala ere, anaiarekin joan beharrak urduri samar jartzen du.

Gaur June zientzia-museora doa txangoan, eta garaiz egon behar du eskolan, autobusa hartzeko. Oso urduri dago zientziatzale amorratua delako, eta museoa ezagutzeko irrikaz dago.

Gosaldu ondoren aita lanera joan da, eta anai-arrebak eskolara joateko prestatzen amaitzen ari dira. June zientzia-esperimentuei buruzko liburu bat begiratzen hasi da, eta konturatzerako berandu egin zaie.

Korrika eta presaka atera dira etxetik, euria gogotik hasi duela konturatu gabe: Berriz etxera igotzen badira aterkiak hartzera, are beranduago egingo zaie!

Bat-batean, June gogoratu da lasterbide bat dagoela eskolara joateko. Inoiz erabili ez duen arren, badaki hiru pasabide daudela oinezkoentzat, semafororik gabe, eta autoak oso azkar pasatzen direla. Betiko bidea, ordea, luzeagoa da, eta semaforoa daukan errepide bat baino ez da gurutzatu behar.



6. JARDUERA LABIRINTOA

HONETAN ERE... SEGURU

Arte Hezkuntza eta Mugikortasun segururako jarduerak

Lehen Hezkuntza ○ ● ○

7. JARDUERA

NIRE EMOZIOAK KALEAN ETA MUSEOAN

HELBURUAK

- Informazioa irudi esanguratsuetan hautatzea.
- Margolanetako testuretan eta koloreetan emozioak identifikatzea.
- Ohiko joan-etorrietan izaten diren emozioak identifikatzea.

METODOA

Banakako lana. Interneteko bilaketa, bikoteka.

MATERIALA

- Arbela.
- Internet konexioa, ordenagailua eta proiektagailua.
- Ikasleen gailua (tableta, ordenagailua, etab.)
- Emozioen taula. (*Eranskina*).

GARAPENA

Hezitzaileak lan bat bikoteka egitea proposatzen du. Horretarako, bikote bakoitzak taulako egoera guztiak irakurriko ditu (*eranskina*), minutu batzuetan gogoeta egingo du, bere iritziak partekatzen ditu eta, amaitzeko, dagokion informazioa idazten du taulan:

- Zer egingo du protagonistak?
- Zer emozio sentitzen duela uste duzue?
- Zer kolore iradokitzen dizue emozioak/egoerak?
- Zer marrazki, teknika edo artelan inspiratzen dizue?

Prozedura hori bera jarraituko da egoera bakoitzarekin.

Taulako azken zutabea iturri desberdinak kontsultatuz egingo da: Internet, ikastetxeko liburutegia...

Adibidez: 1. egoeran pentsa dezakegu protagonistak korrika zeharkatuko duela zebrabidea. Zer emozio eragiten digu? Bakardadea, abandonua, hotza, tristura...? Kolore ilunagoak eragiten dizkigu, argitasun gutxikoak: urdina, grisa eta beltza. Marrazkian baso bat gauez ikusiko litzateke, urrutira etxe bat ageri dela, eta hautatutako margolana Van Gogh-en "Gau Izartsua" izango litzateke.



Eduki erkideak

Entzumen-hautematea eta musika-ulermena
Musika-espresioa, interpretazioa eta sorkuntza
Erreferente plastiko eta bisualen ulerkuntza, pertzepzioa eta interpretazioa

Plastika- eta ikusmen-artearen ekoizpena, adierazpena eta sorkuntza

HONETAN ERE... SEGURU

Arte Hezkuntza eta Mugikortasun segururako jarduerak


Lehen Hezkuntza ○ ○ ○



Bikote guztiek amaitutakoan, erantzunak ahoz partekatuko dira une batez, antzekoak diren ala ez egiaztatzeko.

Hezitzaileak galdera hauek egingo dizkio ikastaldeari:

- Gure istorioetako protagonisten jokabideak seguruak ala ez-seguruak dira?
- Zuen ustez, zer eragina izan dute emozioek protagonistengan?
- Ikusten duzue harremanik emozioen eta segurtasunaren artean?



ONDORIOAK

Hezitzaileak ideia hauekin amaituko du:

- Askotan, estres emozionaleko egoeretan, gure emozioak lehenesten ditugu segurtasunaren gainetik, modu inkontzientean.
- Oso garrantzitsua da sentitzen ari naizen emozioaz konturatzea eta, mugitu baino lehen, minutu batzuk lasai gelditzea leku seguru batean, istripuak saihesteko.

7. JARDUERA

NIRE EMOZIOAK KALEAN ETA MUSEOAN

HONETAN ERE... SEGURU

Arte Hezkuntza eta Mugikortasun segururako jarduerak

Lehen Hezkuntza ○ ● ○





"Gau Izartsua" 1889
Vincent van Gogh

1. ERANS-KINA

EMOZIOEN TAULA

Bete ezazue taula, egoera bakoitzak iradokitzen dizuen emozio, kolore eta marrazki motarekin.

EGOERA:	Zer egingo du protagonistak?	Zer emozio sentitzen duela uste duzue?	Zer kolore iradokitzen dizue emozioak/egoerak?	Zer marrazki, teknika edo artelan mota inspiratzen dizue?
1. EGOERA. Ane korrika doa kaletik, berandu dabilelako, eta zebrabide batera iritsi da. Semaforoa laranja dago, eta Anek ez dauka aterkirik.				
2. EGOERA. Jokin ikasgelako taldearekin elkartzeko da, lehen aldiz, larunbat arratsaldean ateratzeko. Berandu dabil, eta ez daki itxarongo dioten ala ez.				
3. EGOERA. Iñaki semaforo batera iritsi da, amarekin. Adineko bat ikusten du zebrabidea zeharkatzen, eta semaforoa gorri jarri da jada.				
4. EGOERA. Gaur goizean Maleni errieta egin diote etxean, logela ez jasotzeagatik. Korrika alde egin du, haserre, ate-danbateko bat emanda.				
5. EGOERA. Eneko bidegorrian dabil familiarekin, bizikletaz, eta ustekabeen bere lagun onenarekin topo egin du. Duela urtebete beste hiri batera bizitzera joan zen, eta geroztik ez du ikusi.				
6. EGOERA. Jaione oportetan dago familiarekin, ezagutzen ez duen leku batean. Jostailu-denda baten erakusleihoa ikusten gelditu da eta, buelta ematerako, ez dago inor! Galdu egin da!				

7. JARDUERA

NIRE EMOZIOAK KALEAN ETA MUSEOAN

HONETAN ERE... SEGURU

Arte Hezkuntza eta Mugikortasun segururako jarduerak

Lehen Hezkuntza ○ ● ○

3. JARDUERA

MUGIMENDUAREN COLLAGEA

HELBURUAK

- Arteen eta kultura bisual eta musikalaren produktuek ideiak, sentimenduak eta bizipenak komunikatzeko eta adierazteko dituzten aukerak ezagutzea.
- Emisioak eta istripuen kopurua murrizteko neurriak hartzearen garrantziaz jabetzea.
- Publizitateari buruzko gogoeta egitea eta jarrera kritikoa garatzea.

METODOA

Elkarrizketa gidatua Banakako lana. Talde txikia. Talde-etzabaida.

MATERIALA

- "Gaixorik" dagoen Lur planetarekin lotutako irudia.
- Birziklatutako aldizkariak eta egunkariak.
- Internet konexioa, ordenagailua eta proiektagailua.
- Eskolarako bi artazi.
- Barrako kola.
- Kartoi mehea.



GARAPENA

Hezitzaileak elkarrizketa gidatu bat hasiko du ikastaldearekin, jarraian agertzen diren galderak eginez eta "gaixorik" dagoen Lur planetarekin lotutako honen moduko irudi bat erakutsiz:



- Zer iradokitzen dizu marrazkiak? Zure ustez, zergatik dago Lurra gaixorik?
- Zerk sortzen du kutsadura?
- Zer garraio bide dira gehien eta gutxien kutsatzen dutenak?
- Zer garraio bide dira arriskutsuenak? Eta seguruena?

Hezitzaileak ikasleak bideratzen ditu, atmosferaren kutsadura eta ibilgailu motordunen erabilera lotu ditzaten. Bestalde, planeta zaintzeko mugikortasun-modu jasangarrienak azpimarratuko dira: adibidez, distantzia laburretan oinez ibiltzea, bizikletaren erabilera arduratsua, autoa partekatzea, garraio publikoa gehiago erabiltzea, auto pribatua gutxiago erabiltzea, modu ekologikoagoan gidatzea, ibilgailu efizienteak erostea (A etiketa energetikoa, zero isurtzearen etiketak, eta abar.)

Jardueraren hurrengo fasea aurkezteko, hezitzaileak beste galdera bat egiten du:

- Begiratu diozue inoiz zenbait garraio bideetan jartzen den publizitateari? Zer garraio bideetan jartzen da publizitate gehiago? Zeinetan gutxiago?

Birziklatutako aldizkari edo egunkarietako publizitate-iragarkien 4 ebakin ekartzen ditu ikasle bakoitzak. Ebakin horiek etxean zein gelan bertan aukeratu daitezke.

Ebakinetako **irudiek zerikusia izango dute joan-etorriekin eta haien eragozpenekin:** kutsadura, istripuak, abiadura, arrisku-portaerak (alkohola edo drogak hartzea) eta abar.

Eduki erkideak

Entzumen-hautematea eta musika-ulermena
Musika-espresioa, interpretazioa eta sorkuntza


Erreferente plastiko eta bisualen ulerkuntza, pertzepzioa eta interpretazioa

Plastika- eta ikusmen-arten ekoizpena, adierazpena eta sorkuntza

HONETAN ERE... SEGURU

Arte Hezkuntza eta Mugikortasun segururako jarduerak

Lehen Hezkuntza ○ ○ ○



Ekarritako iragarkiak sailkatu egingo dira, mezuak edo garraiobideak "arriskua/segurtasuna" edo "kutsadura/ingurumena errespetatzea" parametroekin duen harremanaren arabera.

Behin iragarkiak sailkatuta, ikasleak 4 taldetan banatuko dira, eta collage bat egingo da ebakinekin, gaia kontuan izanik: arriskua, segurtasuna, kutsadura eta ingurumenaren errespetua.

OHARRA: gerta liteke talde batzuek material gutxi izatea collagea egiteko. Hori horrela bada, irudiak berrantolatu egingo dira. Kasu horretan, garrantzitsua da ikasleak ohartaraztea gai horren inguruan dagoen ebakin kopuru txikiari buruz.

Talde bakoitzak izenburua jarriko dio bere collageari.

Amaitzeko, collageak ikasgelako gainerakoei erakusten zaizkie, eta obraren mezu nagusiaz hitz egiten dute.

Ondorioak edo amaierako mezuak horma-irudietan idatz daitezke, collageekin erakusteko moduan, eta ikastetxeko pasilloetan zintzilikatu.

ONDORIOAK

Hezitzaileak ideia hauekin amaituko du:

- Atmosferako kutsaduraren % 80 inguru ibilgailuen trafikoak eragindakoa da (Ekologistak Martxan).
- Gizaki askok jarraitzen dute errepidean bizia galtzen eta zauri larriak nozitzen ibilgailu motordunek eragindako istripuen ondorioz. Horregatik, garrantzitsua da garraiobide seguru eta jasangarriagoen aldeko apustua egitea.
- Hala eta guztiz ere, ez dirudi hedabideetako publizitateak apustu hori egin duenik; izan ere, garraiobideei buruzko iragarki gehienak zilindrada handiko auto eta motorrei buruzkoak dira, eta, besteak beste, abiadura da haien pizgarri nagusietako bat.

8. JARDUERA

MUGIMENDUAREN COLLAGEA

HONETAN ERE... SEGURU

Arte Hezkuntza eta Mugikortasun segururako jarduerak

Lehen Hezkuntza ○ ○ ○

9. JARDUERA **ARRAUTZA KALTEBERAK**

HELBURUAK


- Gure joan-etorrietan zer kalteberak garen kontzientziatzea, baita geure burua babesteko beharraz ere.
- Motrizitate xehea finkatzea.
- Autoestimua eta adierazteko gaitasuna indartzea, ekoizpen artistiko bat sortzearen bidez.

METODOA

Banakako lana, jolasa eta bateratze-lana.

MATERIALA

- Arrautzak, orratza eta bol bat.
- Pinturak.
- Pintzelak.
- Errotuladoreak.
- Metalezko koilara.
- Oihalezko zapia.




GARAPENA


Jarduera hau egiteko, ikasle bakoitzak arrautza hustu bat ekarri beharko du.

🗨️ Nola hustu arrautza?


Materiala: bol bat, orratz bat eta arrautza bat.



Egin zulo txiki bat arrautzaren mutur zorrotzengan.




Egin beste zulo txiki bat, handiagoa, beheko aldean.




Putz egin, kontuz, zulo txikienetik, barrukoa beste zulotik bolera ateratzeko.



Hustu arrautza erabat, eta lehor ezazu kontu handiz.



Barrutik garbitu dezakezu, xiringa batez ura sartuz.



Ura ateratzeko, putz egin berriro.

Eduki erkideak

Entzumen-hautematea eta musika-ulermena
Musika-espresioa, interpretazioa eta sorkuntza

Erreferente plastiko eta bisualen ulerkuntza, pertzepzioa eta interpretazioa

Plastika- eta ikusmen-arten ekoizpena, adierazpena eta sorkuntza

HONETAN ERE... SEGURU

Arte Hezkuntza eta Mugikortasun segururako jarduerak

Lehen Hezkuntza ○ ○ ○

Ikasgelan, ikasle bakoitzak arrautza margotzen du, hezitzaileak hautatutako teknikak edo materialak erabiliz (errotuladoreak, ur-pinturak, etab.)

Idea posible batzuk:



<https://www.pinterest.es/pin/260434790934028970/>



<https://www.pinterest.es/pin/300615343858866785/>



<http://jarduerak.dibujos.net/manualidades/huevos-de-pascua-decorados-con-pinta-unas-marmoleado.html>

9. JARDUERA

ARRAUTZA KALTEBERAK

HONETAN ERE... SEGURU

Arte Hezkuntza eta Mugikortasun segururako jarduerak

Lehen Hezkuntza ○ ● ○

Behin arrautzak koloreztatuta, zirkuitu bat egingo dutela azaltzen die hezitzaileak ikasleei. Helburua probak gainditzea izango da, arrautza **hautsi gabe** eramanez.


Hala eta guztiz ere, arrautza EZIN IZANGO DUTE eskuekin ukitu: besteak beste koilara, folio, edo trapu batean eraman ahal izango dute. Hezitzaileak denbora emango die ikasleei, zirkuitua hasi baino lehen garraiobidea prestatzeko.

Ikasle bakoitzak, arrautza daramala, oztopoen zirkuitu batetik pasa beharko du (paper-zorroen gainetik salto egin, mahaien azpitik pasa, estutxe-lerro bat saihestu...), **ukitu gabe eta hautsi gabe**. Zirkuituak zailtasun-maila desberdinak eduki ahal izango ditu: begiak irekita egin ahal izango da, edo begiak zapi batez estalita eta ikaskide baten azalpenak jarraituz, "txingoka"...

Hezitzailearentzako oharra: Probak aldatu ahal izango dira, hezitzailearen irizpidearen eta espazioaren arabera.

Arrautza ukitzen badute, erortzen bazaie edo hausten bazaie jolasetik kanpo geldituko dira.

Amaitzean, talde handian, galdera hauei erantzuten saiatuko dira:

- 
- Zein izan da proba zailena? Zergatik?
 - Zenbat arrautza erori dira? Eta zenbat hautsi dira?
 - Zer egin duzue arrautzak babesteko? Zertan ahalegindu zarete gehiago, arrautza margotzen (estetika) edo babesten (segurtasuna)?
 - Nola sentitu zarete ibilbidean zehar?
 - Orain, dakizuena jakinda, aldatuko zenukete zerbait arrautza babesteko moduan?
 - Orain, irudikatu arrautza horiek kalean oinez dabilzala. Zein izango lirateke arrautzak hausteko arrisku handieneko egoerak? Eta, zer egin dezakete arrautzek bere burua babesteko?

ONDORIOAK

Hezitzaileak ideia hauekin amaituko du:

- Arrautzak oso hauskorrek dira, erraz kaltetu eta hautsi daitezke. KALTEBERA izatea deitzen diogu horri.
- Pertsonak ere, arrautzak bezala, istripuak izateko arriskuan gaude. Batzuetan min pixka bat baino ez dugu hartzen; beste batzuetan mina handia da, eta zenbaitetan, zoritxarrez, hil ere egin gaitzke (guztiz hautsi).
- Ariketa honetan tentsio pixka bat sentitu dugu arrautza babesteko, kaltebera baita gelako ibilbidean zeuden arriskuen aurrean, eta arreta berezia jarri diegu inguruneke inguruabarrei. Arreta hori bera jarri behar dugu oinezko edo txirrindulari gisa hirian mugitzen garenean, kale bat gurutzatzen dugunean... hau da, gure kalteberatasunaz jakitun izan behar dugu, eta GURE BURUA BABESTU (adibidez, kalearen bi aldetara begiratu eta entzun, eta arretaz gurutzatu, korrika ibili beharrik gabe).

9. JARDUERA

ARRAUTZA KALTEBERAK

HONETAN ERE... SEGURU

Arte Hezkuntza eta Mugikortasun segururako jarduerak

Lehen Hezkuntza ○ ○ ○

10. JARDUERA ZARATA EDO ISILTASUNA

HELBURUAK


- Jarrera kritikoa garatzea eraso akustikoen aurrean.
- Pertzepzioak (akustikoak zein bisualak) trafikoaren inguruko egoeretan duen garrantziaz jabetzea.
- Mugikortasun isilagoa, eta, era berean, seguruagoa lortzeko neurriak identifikatzea.

METODOA

Antzezpena, bateratze-lana, talde txikiko lana.

MATERIALA

- Bide-rolak idatzita dituzten txartelak.
- Internet konexioa eta proiektagailua.
- Ikasleen gailua (tableta, ordenagailua, etab.)



GARAPENA

Hezitzaileak txartel bana emango die ikasleei; bertan, jokoan antzeztuko duen bide-rola egongo da idatzita: autoa, motozikleta, kamioia, patinetea, bizikleta, furgoneta, autobusa, tranbia, oinezkoa, irristailuak, segway-ak...

Bide-eszena bat antzeztuko da minutu batzuetan. Ikasle bakoitza ikasgela osoan mugitu ahal izango da, eta **dagokion rola**ren **zaratak baino ez ditu egingo**.

Hezitzailearentzako oharra: Lekua oso handia bada (pilotalekua edo gimnasio bat), arian-arian murriztuz joan daiteke, tentsioa areagotzeko. Ariketa honetan, nolabaiteko "desordena" eta zarata sortzea da helburua.


Gero, hezitzaileak galdera hauek egingo dizkio talde osoari:

- Zer zarata egin dituzue?
- Izan da desberdintasunik hasierako jolaseko soinuen eta amaierakoaren artean?
- Nola sentitu zarete hasieran? Eta amaieran?

Jarraian, klaxonean oinarritutako zirkulazioari buruzko bideo bat ikusiko dugu:



<https://www.youtube.com/watch?v=zxODO5fuOao>



Eduki erkideak

Entzumen-hautematea eta musika-ulermena

Musika-espresioa, interpretazioa eta sorkuntza

Erreferente plastiko eta bisualen ulerkuntza, pertzepzioa eta interpretazioa

Plastika- eta ikusmen-artearen ekoizpena, adierazpena eta sorkuntza

HONETAN ERE... SEGURU

Arte Hezkuntza eta Mugikortasun segururako jarduerak

Lehen Hezkuntza ○ ○ ○

Bideoa ikusi ondoren, bateratze-lan bat egingo da, galdera hauen bitartez:



- Zerk eman dizue atentzia bideoan?
- Mugikortasuna antolatzeke modu hori aurkitzen duzu zure herrian?
- Zuen ustez, mugikortasuna antolatzeke modu egokia da?
- Mugikortasuna antolatzeke modua zaratan oinarritu daiteke?
- Zure hirian, zerk egiten du hainbesteko zarata?
- Zertarako balio du zaratak?
- Zein izan daiteke zarataren jatorria trafikoari dagokionez?
- Zer abantaila eta desabantaila ditu gure joan-etorrietan klaxona erabiltzeak?

Elementu akustikoak **prebentzio-neurri gisa eta erne egoteko** erabiltzen ditugu: adibidez, larrialdietako sirenak. Hala ere, gogaikarriak izan daitezke: Hezitzaileak zenbait galdera egingo ditu, zirkulazio zaratatsuen arazorako konponbideak bilatze aldera:

Zer egin dezakegu gure herrian isilago zirkulatzeke? Eta seguruago?

Beste bideo bat ikusten da gero, lehen hamabost segundoetan mugikortasun isilari arreta berezia jarritz.

Lehen minutua: <https://www.youtube.com/watch?v=FXBn68ALjcE>

Zer neurri proposatzen dira bideoan modu isilagoan zirkulatzeke?

Aruak betetzea, zoladura berezi bat erabiltzea soinu murrizteko, klaxona ez erabiltzea, arreta gehiago jartzea, abiadura gutxitzea, etab.

Amaiera gisa hasierako antzezpena proposatu daiteke, bolumena murriztuz eta ikasleek egindako proposamenetako batzuk aplikatuz.

Bi antzezpenetatik, zein da seguruena zuen ustez? Lehenengoa, klaxonen eta sirenen soinuarekin, edo bigarrena, ingurune isilarekin?

ONDORIOAK

Hezitzaileak ideia hauekin amaituko du:

- Soinu-alerten erabilera lotuta dago mugikortasun seguruarekin. Hala ere, alerta horiek gaizki erabiltzeak kontrako eragina izan dezake.
- Bestalde, soinu-baliabideak edozein modutan erabiltzeak "tolerantzia" eragina sor dezake: soinuekin ohitu egiten gara, eta arriskuez ohartarazteko gero eta maila handiagoa gainditu behar da.
- Gure garraio bideen soinu-elementuak ondo erabiltzeaz arduratu behar dugu.

10. JARDUERA

ZARATA EDO ISILTASUNA

HONETAN ERE... SEGURU

Arte Hezkuntza eta Mugikortasun segururako jarduerak

Lehen Hezkuntza



HIRUGARREN ZIKLOA

ARTE-HEZKUNTZA – LEHEN HEZKUNTZA:

HIRUGARREN ZIKLOKO EDUKIAK

	JARDUERAK				
	11	12	13	14	15
1. MULTZOA. EDUKI ERKIDEAK					
Planifikatu eta egindakoa ebaluatzea eta hobekuntza-proposamenak garatzea.	●		●	●	●
Lankidetzeta eta elkarlana, taldean ikasteko zereginetan.	●		●	●	
Emozioen autorregulazioa.			●		
Portaera moralaren autorregulazioa.		●			●
2. MULTZOA. ENTZUMEN-HAUTEMATEA ETA MUSIKA-ULERMENA					
Soinuaren eta hori sortzen duten soinu-iturrien aukerak aztertzea eta horien ezaugarriak identifikatzea.			●		●
Jarrera kritikoa eraso akustikoen aurrean eta ekarpen aktiboa horren dimentsiora eta ongizate pertsonal eta kolektibora.			●		●
3. MULTZOA. MUSIKA-ESPRESIOA, INTERPRETAZIOA ETA SORKUNTZA					
Ikus-entzunezko baliabideak eta informatika-baliabideak erabiltzea musika-piezak sortzeko, irudiei eta antzezpenei soinua jartzeko eta ikasgelan interpretatutako musika grabatzeko.			●	●	●
Interesa eta ardura Interpretazio- eta sortze-jardueretan.	●		●	●	
4. MULTZOA. ERREFERENTE PLASTIKO ETA BISUALEN ULERKUNTZA, PERTZEPZIOA ETA INTERPRETAZIOA					
Analisi formala eta jarrera kritikoa publizitatean, Interneten, bideo-jokoen, aldizkarien... irudien eta hedabideen beste produktuen aurrean.					●
Objektu eta elementu naturalen posibilitate plastiko eta espresiboei buruzko ikerketa.	●		●		
Irudi eta produkzio artistikoei buruzko informazio-bilaketa esanguratsua egiteko interesa.	●		●		
Balorazio kritikoa publizitatean, Interneten, bideoetan, bideo-jokoetan, aldizkarietan eta hedabideetako beste produktuetan erabiltzen diren irudiei buruz.				●	●
5. MULTZOA. PLASTIKA- ETA IKUSMEN-ARTEEN EKOIZPENA, ADIERAZPENA ETA SORKUNTZA					
Irudiak eta objektuak berregitea ideiak eta sentimenduak adierazteko, birziklatzearen dimentsioa ere bere baitan duten eraldaketa grafiko-plastikoetatik hasita.	●			●	
Informazio eta komunikazio-teknologiak erabiltzea, teknologiei buruzko irudiak eta dokumentazioa bilatzeko, bai eta egindako lanak zabaltzeko ere.	●		●	●	●
Espazio errealean esku-hartzeak egitea: ingurune berriak sortzea, daudenak aldatzea...		●	●		
Banakako edo taldeko proiektuak planteatzea askotariko gaiak ikertzeko eta horiei irtenbide plastikoa emateko.	●	●	●	●	
Konstantzia eta exijentzia progresiboa lana egiteko prozesuan, lankidetzan erantzukizunak hartuz, berrikuste-unean ezarritik, besteen ekarpenak errespetatuz eta desadostasunak argudioekin ebatziz.	●		●	●	●

HONETAN ERE... SEGURU

Arte Hezkuntza eta Mugikortasun segururako jarduerak

Lehen Hezkuntza

HIRUGARREN ZIKLOA MUGIKORTASUN SEGURURAKO LOTURA DUTEN JARDUERAK ETA GAITASUNAK

MUGIKORTASUN SEGURURAKO GAITASUNAK	JARDUERAK				
	11	12	13	14	15
Arreta	●	●	●	●	●
Zaugarritasunaren eta arriskuaren kontzientzia	●	●	●	●	●
Ingurunearen azterketa		●	●		
Taldeko presioarekiko erresistentzia			●		
Egokitzapena eta malgutasuna	●		●	●	●
Neure buruaren eta nire emozioen kudeaketa			●		
Bideari lotutako egoeretan estresa kudeatzea			●		●

HONETAN ERE... SEGURU

Arte Hezkuntza eta Mugikortasun segururako jarduerak

Lehen Hezkuntza

11. JARDUERA BABESAK

HELBURUAK


- Objektuak diseinatu, eraiki eta hautatzea bide-segurtasunarekin lotutako ideiak eta/edo kontzeptuak adierazteko.
- Gogoeta egitea giza gorputzaren kalteberatasunari buruz.

METODOA

Banakako lana, taldeko eztabaida.

MATERIALA

- Material birziklatua: plastikozko botilak, arrautza-kartoiak, egunkari- edo aldizkari-papera, plastikozko edalontziak, etab.
- Sokak, hariak, artilea...
- Kuterra edo artaziak.
- Zinta itsaskorra.



GARAPENA

Hezitzaileak gogoeta bat egiten du jarduerari ekiteko, galdera hauen bidez:

- Kalean eroriko bat edo istripu txiki bat izango bazenu, gorputzeko zer ataletan min hartzeak beldurtuko zintuzke gehien? Zergatik?
- Zure ustez, gorputzeko zer atal dira kalteberenak?
- Gorputzeko zer atal dira babestuen daudenak? Zure ustez, zergatik da hori horrela?

Hezitzaileak gogorarazten du giza gorputzaren egiturak babes-irizpide honi jarraitzen diola: bizitzarako funtsezkoak diren atalak, hala nola bihotza eta burmuina, saihetsek eta buru-hezurrak babestuta daude, hurrenez hurren.

Hurrengo ariketa egiteko, **bereziki kalteberatzat** jotzen duten gorputz-atal bat hautatu beharko dute ikasleek, eta hori babesteko diseinu bat egin

Diseinua egin aurretik, ikasleek hau zehaztu beharko dute:

- Zer gorputz-atal babestu behar den.
- Gorputza zer erasotatik babestu nahi den: bizikleta-eroriko bat, irristailu-talka bat, kolpe bat oinez ibiltzean...
- Materialak.



Eduki erkideak

Entzumen-haitematea eta musika-ulermena

Musika-espresioa, interpretazioa eta sorkuntza


Erreferente plastiko eta bisualen ulerkuntza, pertzepzioa eta interpretazioa

Plastika- eta ikusmen-artearen ekoizpena, adierazpena eta sorkuntza

HONETAN ERE... SEGURU

Arte Hezkuntza eta Mugikortasun segururako jarduerak

Lehen Hezkuntza ○ ○ ○



Gero, prototipoa egingo dute eskura dituzten materialekin.

Babesa amaitutakoan, ikasleak 4 laguneko taldetan antolatuko dira. Parte-hartzaile bakoitzak bere produktua erakutsiko die gainerakoei, eta nola funtzionatzen duen azalduko die: non jartzen den, nola eusten zaion, zer erasotatik babesten duen, zer materialez dagoen eginda...

Gero, hezitzaileak galdera hauek egingo ditu:

- Zer abantaila ikusten dizkiozu babesak eramateari? Eta zer eragozpen?
- Zer abantaila ikusten dizkiozu babesak ez eramateari? Eta zer eragozpen?
- Zer ezaugarri eduki behar dituzte babes-elementuek?



ONDORIOAK

Hezitzaileak ideia hauekin amaituko du:

- Pertsonak kalteberak gara, baina, gainera, **gure gorputzeko atal batzuk kalteberagoak** dira beste batzuk baino: batzuk bizitzarako ezinbestekoak direlako (burmuina, bihotza...) eta beste batzuk arrisku gehiago dutelako (belaunak, eskumuturrak...)
- Jarduera jakin batzuk egiten ditugunean, hala nola bizikletaz, irristailuz edo patinetez ibiltzea, eta baita motozikletaz edo kotxez ere, **babes gehigarri** bat bermatu behar diegu gure atal kalteberenei, eta istripua izanez gero izan litezkeen kalteak murriztu.
- Segurtasun-uhalaren erabilera agintzen duten arauak eta, bizikletaren edo motozikletaren kasuan, kaskoaren erabilera arautzen dutenak, trafiko-istripuen kasuan **gu babesteko eta gure kalteak gutxitzeko** daude idatzita.

11. JARDUERA

BABESAK

HONETAN ERE... SEGURU

Arte Hezkuntza eta Mugikortasun segururako jarduerak

Lehen Hezkuntza ○ ○ ○

12. JARDUERA

ESKOLAN SEINALEAK JARTZEA

HELBURUAK

- Sorkuntza-proiektuak eta -lanak planifikatzea, garatzea eta ebaluatzea.
- Arriskuak identifikatzea eta analizatzea eskola-esparruan istripuak prebenitzeko.
- Ohartarazpen-mezu originalak diseinatu eta sortzea identifikatutako arriskuak seinaleztatzeko.
- Trafiko-seinaleei buruzko gogoeta egitea: erabilgarritasuna, betetzea eta diseinua.

METODOA

Banakako, binakako eta taldekako lana eta eztabaida.

MATERIALA

- Kartoi mehea.
- Errotuladoreak.
- Eskolarako bi artazi.
- Barrako kola.



GARAPENA

Hezitzaileak ikasle guztiekin eskola-esparru osoan paseo bat ematea proposatzen du, arriskuak bilatzeko aginduarekin.

Behin ikerketa amaituta, taldea binaka antolatzen da eta aurkitutako arriskuak bat esleitzen zaie.

Bikote bakoitzak, lehenik, arriskua **identifikatu eta analizatu** behar du.

- Deskribapena.
- Kokalekua.
- Kalte posibleak

Gero arrisku hori seinaleztatu beharko du, poster, horma-irudi, logotipo edo seinale batean jarritako ohartarazpen edo aholku original eta sortzaile baten bidez. Horretarako, eskolako materiala izango dute eskura: kartoi mehea, errotuladoreak, artaziak....

Amaitzeko, dagokion lekuan **jarriko dute** ohartarazpena edo aholkua.

Behin jarri ondoren, bikote bakoitzak paseoa egingo du berriz eskola-esparruan, eta beste taldeek jarri dituzten ohartarazpenak eta seinaleak ikusiko ditu.



Eduki erkideak

Entzumen-hautematea eta musika-ulermena

Musika-espresioa, interpretazioa eta sorkuntza

Erreferente plastiko eta bisualen ulerkuntza, pertzepzioa eta interpretazioa

Plastika- eta ikusmen-arten ekoizpena, adierazpena eta sorkuntza

HONETAN ERE... SEGURU

Arte Hezkuntza eta Mugikortasun segururako jarduerak

Lehen Hezkuntza ○ ○ ○



Ikasgelara itzulita, hezitzaileak talde-eztabaida batekin emango dio amaiera jarduerari, galdera hauen bitartez:

- Zer seinale iruditzen zaizkizue informatzaileagoak eta erakargarriagoak: kalekoak edo ikastetxerako egin dituzuenak.
- Egingo zenuke aldaketarik trafiko-seinaleetan? Erantzuna baietz bada, zer aldatuko zenuke?
- Zer abantaila eta eragozpen edukiko luke arriskuei buruzko seinaleak bakoitzak bere modura egiteak?
- Zuen ustez, zuen ikaskideek errespetatu edo kontuan izango dituzte zuen seinaleak? Zergatik?



ONDORIOAK

Hezitzaileak ideia hauekin amaituko du:

- Askotan istripuak ezin dira ekidin. Hala ere, haien larritasuna murriztu daiteke, seinaleak erabiliz eta arauak errespetuz.
- Leku **ez-segurua** identifikatzea eta prebentzio-jokabide egokiak izatea funtsezkoa da mugikortasunaren arloan.
- Kale eta errepideetako **seinaleak** esaten digute zer lekutan izan behar dugun arreta edo kontu berezia. Erabiltzen diren modua, kolorea eta hizkuntza ezinbestekoak dira arriskuak modu egokian identifikatzeko: erraz eta azkar ulertu behar ditu bide horretan dabilen edozein pertsonak.

12. JARDUERA

ESKOLAN SEINALEAK JARTZEA

HONETAN ERE... SEGURO

Arte Hezkuntza eta Mugikortasun segururako jarduerak

Lehen Hezkuntza ○ ○ ○

13. JARDUERA ERABILERA SORTZAILEAK

HELBURUAK

- Teknika eta baliabide desberdinak ezagutu eta erabiltzea arte-produktuak egiterakoan.
- Talde-lana eta lankidetzatza sustatzea.
- Segurtasuna eta babesatza baloratzea ibilgailuak egiteko oinarritzko alderdi gisa.

METODOA

Bikotekako lana, talde txikia eta bateratze-lana.

MATERIALA

- Material birziklatua: gorpilak, ardatzak, jostailu-zatiak, etab.
- Kola, grapak, zela...
- Dekorazio-elementuak: pinturak, pegatinak...




GARAPENA

Hezitzaileak hiruko taldeak antolatzen ditu ibilgailu baten prototipoa produzitzeko, ezaugarri hauekin:


- Segurua.
- Jasangarria.

Prototipoa egin aurretik, talde bakoitzak hau zehaztu beharko du:

- Indar eragilea zein izango den (nola lortuko dugun mugitzea)
- Bidaia-rien kopurua.
- Elementu bereizgarriak, originalak.
- Osatzen duten parteak.
- Behar diren materialak.



Idea posibleak



Eduki erkideak

Entzumen-hautematea eta musika-ulermena

Musika-espresioa, interpretazioa eta sorkuntza

Erreferente plastiko eta bisualen ulerkuntza, pertzepzioa eta interpretazioa

Plastika- eta ikusmen-arten ekoizpena, adierazpena eta sorkuntza

HONETAN ERE... SEGURU

Arte Hezkuntza eta Mugikortasun segururako jarduerak

Lehen Hezkuntza ○○○

Ibilgailuaren prototipoa eraikita, funtzionamendu-proba bat egingo da leku desberdinetan (azalera desberdinekin, aldapekin, oztopoekin, etab.) Beharrezkoa izanez gero, dagozkion doikuntzak egingo dira.

Gero, test bat egingo da, talde txikian, eraikitako proiektuen bideragarritasunari buruz gogoeta egiteko.

- Irudikatu zure proiektua tamaina errealean: Zure auzoko kaletik gidatu zenezake?
- Beste ibilgailuak baino azkarragoa izango litzateke? Seguruagoa izango litzateke?
- Zer abantaila izango lituzke beste ibilgailu batzuekin alderatuta? Zer eragozpen?
- Proiektuaren zer elementutan gauzatu dituzu segurtasun- eta jasangarritasun-irizpideak?
- Zer du faltan, edo zer sobran, zure prototipoak jasangarriagoa eta seguruagoa izateko?

- Segurtasun-irizpideei dagokienez, proiektua egiterakoan kontuan izan duzu bidea erabiltzen duten beste pertsonen segurtasuna, ala ibilgailuan daudenena bakarrik? (*Puntu honetan funtsezkoa da bidea erabiltzen duten beste pertsonen gure asmoen berri ematearen garrantzia azpimarratzea: argiak, txirrina, besoekin seinaleak egitea...*)
- Zer aldaketa egin ditzakezu bidean dauden beste pertsonak kontuan hartuta?

Amaitzeko, ikastetxeko patioan erakusketa egin liteke, eta lehiaketa bat, non epaimahaiak kategoria desberdinak baloratu ditzakeen: jasangarriena, seguruena eta/edo berritzaileena.

ONDORIOAK

Hezitzaileak ideia hauekin amaituko du:

- Ibilgailu baten segurtasunak, bertan doazenei ez ezik, bidea erabiltzen duten gainerakoei ere eragiten die.
- Zirkulatzean, funtsezkoa da gure asmoen berri eman ahal izatea. Txirrina, seinaleztapen- edo posizio-argiak, edo besoekin egin ditzakegun seinaleak beste pertsonen egingo duguna adierazteko tresnak dira, horretarako prest egon daitezten.
- Elementu horiek, garrantzitsuak diren arren, ez dira beti kontuan izaten ibilgailu bat aukeratzekoan.

13. JARDUERA

ERABILERA SORTZAILEAK

HONETAN ERE... SEGURU

Arte Hezkuntza eta Mugikortasun segururako jarduerak

Lehen Hezkuntza ○ ○ ○

14. JARDUERA BIZIKLETA

HELBURUAK


- Lankidetzaproiektuak eta -lanak planifikatzea, gauzatzea eta ebaluatzea.
- Segurtasunari lehentasuna ematea, irizpide estetiko, ekonomiko eta bestelakoen gainetik.

METODOA

Banakako lana, talde txikia, bateratze-lana.

MATERIALA

- Internet konexioa, gailua (tableta, ordenagailua, etab.)
- Folioak.
- Arkatzak, argizariak edo koloretako errotuladoreak.
- Erregela.
- Konpasa.
- Birziklatutako aldizkariak eta egunkariak.



GARAPENA

Banaka, ordenagailua eta Internet konexioa erabiliz, ikasleak bizikleten hiru irudi deskargatzen ditu, garai eta/edo herrialde desberdinetakoak (forma, kolore eta gurpil mota desberdinak, trizikloak, tandemak, etab.)

Gero ikasgela lau pertsonako talde txikitan antolatuko da. Talde bakoitzak bi irudi hautatuko ditu, haien artean behar bezain desberdinak, eta gutxienez hamar desberdintasun aipatuko ditu.

Gero talde bakoitzak PowerPoint-eko aurkezpen bat egingo du, eta bertan sorkuntza-prozesua erregistratuko du. Lehen diapositibetan bi irudiak jasoko dira, desberdintasunak nabarmenduta.

Hezitzaileak galdera hau egiten du:

🗨 Bizikleta hori "tuneatu" ahal izango bazenu, zer gehituko zenuke?, zer kenduko?... frenoak?... argiak?... musika?...

Eduki erkideak

Entzumen-hautematea eta musika-ulermena

Musika-espresioa, interpretazioa eta sorkuntza

Erreferente plastiko eta bisualen ulerkuntza, pertzepzioa eta interpretazioa

Plastika- eta ikusmen-arten ekoizpena, adierazpena eta sorkuntza

Talde bakoitzak hautatutako bi bizikletetako bat aukeratuko du diseinu berri bat egiteko, prozedura jarraituz eta dokumentatuz:

- **Ideia-jasa.** Zer elementu gehitu, aldatu eta/edo ezabatuko dira egungo diseinuan?
- **Hautaketa:** Zer elementu geratzen dira finkatuta eta zeintzuk aldatu dira?
- **"Tuneatze" plana.** Zer teknika artistiko erabiliko da diseinu berria egiteko? Zer material? Collagea, marrazki "teknikoa", artistikoa, PowerPoint-eko diapositiba, etab.?

Plangintza amaituta, proposatutako aldaketak paperaren gainean gauzatuko dira.



63

HONETAN ERE... SEGURU

Arte Hezkuntza eta Mugikortasun segururako jarduerak

Lehen Hezkuntza ○ ○ ○

Aldi berean prozesua PowerPoint-eko aurkezpen batean dokumentatuko da.

Amaitzeko, talde bakoitzak bere sormen-prozesuaren aurkezpena erakutsiko du. Aurkezpenen ondoren, galdera hauek egingo dira:




- Zer elementu mota gehitu dizkiozue bizikletari? (elementu estetikoak, segurtasunekoak, erosotasunekoak, ekonomikoak, energetikoak, sozialak...)
- Zer elementu mota kendu dituzue bizikletatik? (elementu estetikoak, segurtasunekoak, erosotasunekoak, ekonomikoak, energetikoak, sozialak...)
- Zer elementu mota mantendu dituzue bizikletan? (elementu estetikoak, segurtasunekoak, erosotasunekoak, ekonomikoak, energetikoak, sozialak...)
- Gehitutako elementu mota guztiek garrantzi bera dute?
- Badago harremanik gehitu, kendu edo mantendutako elementuen eta horien garrantziaren artean?

ONDORIOAK

Hezitzaileak ideia hauekin amaituko du:

- Bizikletek era askotako elementuak dituzte; funtzionamenduarekin lotutakoak (gurpilak, katea, pedalak...) eta/edo segurtasunarekin lotutakoak (frenoak, txirrina, argiak...) Elementu horiek **irizpide estetikoan gaintik mantendu behar dira.**
- Bestalde, badaude hainbat elementu nahitaezkoak ez direnak, ez bizikletaren segurtasunerako ez funtzionaltasunerako (saskiak, zakuak, bizikletaren kolorea, zelaren materiala...), baina gure bizikleta pertsonalizatzeko eta haren garraio-gaitasuna hobetzeko balio dute.
- Jakitun izan behar dugu **bizikleta ibilgailu bat dela**, eta, horregatik, ezinbestekoak diren hainbat elementu dituela, gure segurtasuna bermatzen baitute.



14. JARDUERA

BIZIKLETA

HONETAN ERE... SEGURU

Arte Hezkuntza eta Mugikortasun segururako jarduerak

Lehen Hezkuntza ○ ○ ○

15. JARDUERA PUBLIZITATEA AZTERTUZ

HELBURUAK

- Modu kritikoan baloratzea publizitatean, Interneten, bideoan, bideo-jokoetan, aldizkarietan eta hedabideetako beste produktuetan erabiltzen diren irudiei buruz.
- Publizitatearen eraginaz konturatzea.
- Bide-segurtasunak funtsezko irizpide gisa duen garrantziaz jabetzea, automobilaren sektorearen publizitatean nabarmentzen diren beste alderdi batzuen gainetik.

METODOA

Binakako lana. Talde-eztabaida.

MATERIALA

- Internet konexioa eta gailua (tableta, ordenagailua, etab.)
- Publizitate-iragarkien taula (15.1 eranskina).

GARAPENA

Bikoteka, ikasleek autoei buruzko hiru publizitate-iragarki bilatuko dituzte Interneten. Iragarkiak ikusi ondoren fitxa bete behar dute iragarki bakoitzari buruzko informazioarekin, eta taldearen iritzia adostua jaso.

Bikote berberak auto baten publizitate-iragarkia asmatuko dute, non ezaugarri nabarmenena **SEGURTASUNA** izango baita. Ikasleek fitxa beteko dute, eta asmatutako marka bat, kolore bat, eslogan bat, musika bat, prezio bat eta iragarkiak sortzen duen emozioa jasoko dute bertan.

Hezitzailea adi egongo da, eta arreta jarriko du fitxaren emaitzan; izan ere, garrantzitsua da nabarmentzen diren ezaugarriak segurtasunarekin lotuta egotea (egonkortasuna, freno-sistema, sentsoreak, babes-sentsazioa...)

Fitxako informazioa baietsi ondoren, bikoteek gidoi bat idatziko dute, iragarkian gertatzen diren ekintzen deskripzioarekin. Gero, gidoian oinarrituta, publizitate spot bat grabatuko dute, mugikor batekin edo bideokamera batekin.



Eduki erkideak

Entzumen-hautematea eta musika-ulermena

Musika-espresioa, interpretazioa eta sorkuntza

Erreferente plastiko eta bisualen ulerkuntza, pertzepzioa eta interpretazioa

Plastika- eta ikusmen-artearen ekoizpena, adierazpena eta sorkuntza

HONETAN ERE... SEGURU

Arte Hezkuntza eta Mugikortasun segururako jarduerak

Lehen Hezkuntza ○○○

Horren ondoren, bikote bakoitzak bere publizitate-spota erakusten die gainerako taldeei, eta bere spotaren eta aurretik deskargatutakoen arteko aldeak iruzkintzen ditu, galdera hauetan oinarrituta:

- Zuen ustez, zer iragarkik erakartzen du gehiago arreta?
- Zer elementuk egiten dute erakargarriago?
- Zer publizitate-iragarkik erakartzen du gutxien?
- Zuen ustez, zer iragarkik du eragin handiena? Hau da, erostera gehien bultzatzen duena. Zer iragarkik dauka eragin txikiena? Zergatik?
- Zuen ustez, segurtasuna elementu erakargarria da?
- Zer elementu dauka spot batek erostera bultzatzeko?
- Zure ustez, zure ibilgailua seguruagoa da?

Hezitzaileak taldeko eztabaida bat proposatzen du amaitzeko, publizitateak erosketak erabakietan duen eraginari buruz.

ONDORIOAK

Hezitzaileak ideia hauekin amaituko du:

- Garrantzitsua da irakurketa kritiko bat egitea publizitateari buruz.
- Beharrezkoa da balioa ematea publizitatean presentzia gutxi duten beste elementu batzuei, hala nola jasangarritasuna, etika, bide-segurtasuna, generoagatik, adinagatik eta abarregatik bereizkeriarik ez egotea, etab.



15. JARDUERA PUBLIZITATEA AZTERTUZ

HONETAN ERE... SEGURU

Arte Hezkuntza eta Mugikortasun segururako jarduerak

Lehen Hezkuntza ○○○



PUBLIZITATE-IRAGARKIEN TAULA

Bete ezazue iragarki bakoitzetik eskatutako informazioa.

	MARKA	KOLOREA	ESLOGANA	MUSIKA	PREZIOA	NABARMENDU BEHARREKO EZAUGARRIAK	SORTZEN DUEN EMOZIOA
1. IRAGARKIA							
2. IRAGARKIA							
3. IRAGARKIA							
ZURE IRAGARKIA							

JARDUERA 15 PUBLIZITATEA AZTERTUZ

HONETAN ERE... SEGURU

Arte Hezkuntza eta Mugikortasun segururako jarduerak

Lehen Hezkuntza ○ ○ ●

Materiala honen egileak:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

SEGURTASUN SAILA
Segurtasun Sailburuordetza
Trafiko Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD
Viceconsejería de Seguridad
Dirección de Tráfico

formacciò

taller kreatiboa
taller creativo
creative workshop

tk

2018
